

BIRPASA ARIKETAK

1.GAIA

Hurrengo baieztapenak aztertu eta esan ezazu egia ala gezurra diren

Baieztapena	egia	gezurra
Lipopolikakaridoa (LPS) bakterio guztien hormako oinarrizko osagaia da		
Bakterio gram-positiboek gram-negatiboek baino peptidoglikano gehiago dute		
Mikobakterioen hormetan lipidozko kanpo-mintz bat dago		
Kapsula ezinbestekoa da bakterioak bizirik irauteko		
Finbriak ostalariaren ehunetan eransteko erabili ohi dira		

EZ da peptidoglikano molekularen osagai bat:

- KDO (azido ketodeoxioktonato)
- NAG (N-azetil glukosamina)
- NAM (N-azetil muramiko)
- meso-DMP (mesodiaminopimeliko) aminoazido

Definizio bakoitzari dagokion hitza bilatu hurrengo zerrendan eta taulan kokatu: Finbriak, Zelula gram-positibo, Lipopolisakaridoa (LPS)*, Pilus sexuala*, Kapsula, Flageloa, Endospora, Peptidoglikanoa, Zelula gram-negatibo, Muki-geruza* Porinak, Plasmidoa. *ez daude definituta

Definizioa	Hitza
Bakterio jakin batzuen barruan eraturako zelula bereizgarria; beroaren aurrean eta beste agente kaltegarri batzuen aurrean, oso erresistentea da.	
Bakterio-zelulako proteinazko egitura labur eta haritsuak. Gainazalei atxikitze balio dute.	
Prokariotoek mugitzeko duten organo mehe eta haritsuak; errotazioz funtzionatzen du.	
Zelula estu inguratzen duen polisakarido- edo proteina-geruza lodi eta ongi definitua.	
Kromosomatik kanpo dagoen elementu genetiko; ez da beharrezkoa hazkuntzarako eta ez du zelulaz kanpoko formarik.	
Bakterio gramnegatiboan kanpo-mintzean dauden proteina-kanalak; kanal horietatik tamaina txiki eta ertaineko molekulak pasa daitezke.	
Zelula-horma gehienbat peptidoglikanoz osatuta daukan zelula prokariotikoa.	
Bakterioen zelula-hormako geruza zurrina; N-azetilglukosaminaz, azido N-azetil muramikoaz eta aminoazido batzuek eraturako geruza mehea. <i>Mureina</i> izenez ere ezagutzen da.	
Zelula-horman nahiko peptidoglikano gutxi duen eta, horren gainetik, beste mintz bat duen zelula prokariotikoa. Azken mintz hori lipopolisakaridoz, lipoproteinaz eta beste makromolekula konplexu batzuek osatuta dago.	

Escherichia coli hazteko hurrengo hazkuntza-ingurua prestatzen dugu laborategian:

- Glukosa 10 gr
- Nitrato monopotasikoa 0,1 gr
- Nitrato bipotasikoa 0,1 gr
- Agar-agar 7 gr

Ez da haziko, nahiz eta inguruko atmosferan oxigenoa egon eta tenperatura 37°Ckoa izan.

Zein izan daiteke arrazoia?

2.GAIA

Hurrengo baieztapenak aztertu eta esan ezazu egia ala gezurra diren

Baieztapena	egia	gezurra
Bakterioen plasmidoek birulentzi-geneak izan ditzakete		
Plasmidoak bakteriofagoen bidez transmititu ahal dira		
Transformazioa gertatzeko bakterioen arteko kontaktu fisikoa behar da		

Bakterio-populazioetan berezko mutazio tasa eukariotoen populaziotan baino askoz handiagoa da		
Transposonetan dauden antibiotikoekiko erresistentzi-geneak arin zabaltzen dira bakterio espezie ezberdinetan		

Bi bakterioen arteko transferentzia genetiko mekanismoetatik zein ez da gertatuko nukleasak dituen inguru batean:

a. konjugazioa

b. transformazioa

c. transdukzio orokorra

d. transdukzio murriztua

3.GAIA

Elkatu termino bakoitza dagokion definizioarekin

1. Lehen mailako patogenoa	
2. Patogeno oportunistak	
3. Eramaille osasuntsua	
4. Patogenotasuna	
5. Infekzioa	
6. Gaixotasun infekziosoa	
7. Birulentzia	
8. Kolonizazioa	
9. Endotoxina	
10. Exotoxina	
11. Sideroforoa	

Definizioak:

- a) zelulatik kanpora jariatzen den proteina toxikoa.
- b) mikroorganismo baten ugalketa ostalariaren kanpoaldean (larruazalean edo mukosetan)
- c) bizkarroi batek ostalariari kalte egiteko duen gaitasuna.
- d) soilik aurretik immunogutxituta dauden ostalariei kaltea eragiteko gaitasuna duen organismoa
- e) zelulatik askatzen ez den toxina; zelularen kanpo-mintzari lotutako lipidoa da.
- f) mikroorganismoen ugalketarik sortutako gaitz sintomatikoa
- g) aurretik osasuntsu dauden ostalariei kaltea eragiteko gaitasuna duen organismoa.
- h) organismo patogenoak infektatuta dagoen pertsona osasuntsu bat; infekzioa transmititu dezake besteei
- i) burdinari, oso kontzentrazio txikian egon arren, lotzeko gaitasuna duen burdina entzima-multzoa.
- j) bizkarroi baten patogenotasun-maila.
- k) patogenoen ugalketa ostalariaren barruan

Gaixotasun infekziosoen bilakaeraren eskema egin (urratsak)

Taula osatu

Ezaugarriak	Exotoxinak	Endotoxina
Izaera kimikoa		
Toxizitatea	Handia	Ertaina
Ekintza mekanismoa	Espezifikoa	Ez espezifiko
Beroarekiko sentikortasuna		
Toxoideak	Bai	Ez
Immunogenizitatea		Gutxi
Txertoak egiteko aukera		
Bakterio sortzaileak		Gram-negatiboak